

ZAKILIXUT

© Olariagak



EDURNE KOCH

Eguraldia lagun

■ *Euskal presoek Euskal Herriratzea eskatzeko 'hotz greba' egiten ari dira Zarautzen*

EZIN kexatuko zaizkio eguraldiari. Euskal presoak Euskal Herriratzea eskatzeko *hotz greba* egitea erabakia zuten lehendik Gazte Ekimenekoek, eta hotza lagun izan dute, izan dutenez.

Patxi Caminos, Zigor Altzibar eta Haritz Sarobe zarautzarrek oste-gunean goizeko zortzietan erantzi zituzten arropak Zarauzko Institutuaren atarian eta, galtzontziloetan —tapaki bana soinean, txankletak oinetan eta txapela buruan—, norbere ikasgelara abiatu ziren. Bi kaleratu egin zituzten, ordea, irakasleek, eta hainbat ikasle ere irten egin ziren ikaskideekin elkartzunean. Institutuko sarreran bilduta zirela, argia piztu zitzaion Saioari: «Zergatik ez ditugu denok arropak erantzen?». Zirt-zart, jertseak gora, alkondarak fuera eta frakak behera, galtzontzilotan eta kulero-tan gelditu ziren berrogeita hamar bat ikasle. Atarira irten ziren gero, kanpora. Zuzendariak ere horretarako gonbita egin zien: «Hotz greba izatekotan, kanpoan egin behar duzue, berogailuarekin batere hotzik ez du egiten-eta hemen.



EDURNE KOCH

Presoek ez dute halako berogailurik!», esan omen zien.

Atarian zeudela, Institutuko atak nola itxi zituzten ikusi zuten eta, ikasleak —inuxenteak— arropak barruan utzita. Eta ostegun goizean ez zen giro. Hiru grebalariei inbidiaz begiratzen zieten

orduan beste guztiek: haiek, behintzat, tapaki eta txapel bana zuten. Gainerakoei, galtzontzilo eta kulero hutsean, hotza zilborretik hezurretaraino sartzen zitzairen. Zerbait egin behar eta manifestazioan abiatu ziren, Institutuaren inguruetan. Auzokideak,

Manifestazioa egin zuten atzo goizean 'hotz grebalariek' hainbat ikaskideekin batera.

zur eta lur: «Gazteak benetan zoratu dira oraingoan!».

Gaua kanpoan

Institutura sartu eta arropak janzterik izan zuten azkenean, baina hiru grebalariek, egunean zehar pasatako hotzarekin konforme ez eta, gaueko hotza ere nahi zutela erabaki zuten. Ikastetxe barrurako baimenik ez, eta Institutu atzeko arkupe batean hartu zuten ostatu. Gauez lorik ez egiteko aholkatu zien medikuak —«ez, behintzat, ordubete jarraian baino gehiago», eta orduerdian behin korrika pixka bat egiteko. Txandak antolatu zituzten: bi lotan eta bat esna, ordubete pasatakoan lagunak esnarazteko. Hala joan zen gaua, guardia egitea zegokionak, Haritz-ek, logureari amore eman zion arte. Hiru orduko loa egin zuten jarraian. Dar-dar batean esnatu ziren seiak aldera hiru-rak. Izozte sintomarik gabe, hala ere.

Ikasgelara joan ziren gero, tapakia soinean eta txapela buruan oraindik. Biologia klasea izan zuten Haritzek eta Zigorrek, baina ez zioten arreta handirik jarri. «Arratsaldean botako dudana siesta izan dut buruan», zioen Zigorrek. 11:30etan atera ziren gelatik: *Ikasleok ere presoekin borrokan* zioen pankarta eskuetan hartu, Zarauzko beste ikastetxeetako ikasleen manifestazioarekin bat egin, hauen txaloak entzun, eta herrigunerantz abiatu ziren hiru-rak, berrehun bat laguneko manifestazioaren buruan.

Iluntzean Gazte Ekimeneko beste hainbat lagunak hartu zieten lekukoa, euskal presoek Euskal Herriratzea eskatzeko *hotz greba* asteburu osoan egitekoak baitira Zarauzko udaletxe aurrean; eguraldia lagun, atzo iluntzeko zortzietan hasi eta igande arratsaldeko ordubietan bukatuko dute.

Imanol Murua Uria

ZARAUTZ